

BURUKETAK

Josebak 456 txapa zituen, baina lagun bati 432 eman dizkio. Zenbat txapa ditu orain?

Elenak txikle bat eta karamelu bat erosi nahi ditu. Txikleak 78 zentimo balio du, eta karameluak, 35 zentimo. Zenbat diru behar du Elenak bi gauzak erosteko?

Endikak futboleko ehun eta hogeikromo ditu. Bilduma berrehun eta berrogeita bostekoa da. Zenbat kromo falta zaizkio Endikari bilduma osoa izateko?

Bilera batean 315 lagun elkartuko dira. Hasi baino lehen, 125 gizon eta 98 emakume daude. Zenbat lagun falta dira?

Elefante eme batek 4.500 kilo ditu, eta umeak, berriz, amak baino 3.182 kilo gutxiago. Zenbat kilo ditu umeak?

8.540 lagunek eman dute izena maratoni batean parte hartzeko. 2.726 emakumeak dira. Zenbat gizonek hartuko dute parte maratoniari?

Astelehenean 125 lagunek eman zuten izena ibilaldi baterako; asteartean, 196k; eta asteazkenean, 275ek. Zenbatek eman dute izena guztira?

Tren batek 3 bagoi ditu, eta 5 kutxa daude bagoi bakoitzean. Hurrengo geltokian, beste bagoi bat gehitu diote; 4 kutxa ditu horrek ere. Zenbat kutxa daramatza orain trenak?

Lehen Hezkuntzako 247 ikasle ibilaldi batera joan dira, 54 eserlekuko 5 autobusetan. Zenbat eserleku geratu dira hutsik?

Oskarrek album batean jaso ditu kromoak. 8 kromo jarri ditu orri bakoitzean, eta 28 orri bete ditu. Zenbat kromo ditu Oskarrek?

Iñigoren, aitaren eta amaren adinen batura 86 urtekoa da. Iñigok 13 urte ditu, eta aitak, 38 urte. Zenbat urte ditu amak?

Andonik 14 urte ditu. Aitak, berriz, Andoniren urteen hirukoitza du. Zenbat urte dituzte bien artean?

Imanolek 45 ogitarteko 8 poltsatan banatu behar ditu. Zenbat ogitarteko sartuko ditu poltsa bakoitzean? Zenbat ogitarteko geratuko zaizkio sobera?

Aparkaleku batean, 89 auto zeuden goizean. Egunean zehar, 37 autoirten dira handik, eta 48 sartu. Zenbat auto daude aparkalekuangauean?

Herri-lasterketa batean 615 gizonak, 170 emakumek eta haur batzuek hartu zuten parte; 840 lagunek, guztira. Zenbat hurrek hartu zuten parte lasterketan?

Portu batean 2.360 pakete daude, eta 5 itsasontzitan sartu behar dituzte. Zenbat pakete eramango ditu itsasontzi bakoitzak?

Luzera-jauziko proba batean, Davidek 2 m eta 8 cm-ko jauzia egin du, eta Mirenek, berriz, 1 m eta 89 cm-ko jauzia. Zenbat zentimetro luzeagoa da Daviden jauzia Mirenen jauzia baino?

Belenek 6 bira eman ditu atletismopista batean. Pista 650 m luze da. Zenbat metro egin ditu guztira Belenek? Zenbat kilometro dira?